

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2219

81/2020 EBAZPENA, apirilaren 16koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Agustín M.^a Pérez Izquierdo jauna Osakidetzako Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Urdulizko Ospitalean atal sanitarioko buru izendatu den lau urterako, aldi baterako, luzatzeko aukerarekin, espezialitate honetan: otorrinolaringologia.

Otsailaren 19ko 53/2019 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetzako Uribeko ESiko Urdulizko Ospitalean atal sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: otorrinolaringologia.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen proposamena egin du. Horiek horrela, eta Agustín M.^a Pérez Izquierdo jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetzako Uribeko ESiko Urdulizko Ospitalean atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: otorrinolaringologia.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat etorritik, zera

EBATZEN DUT:

Lehenengoa.– Agustín M.^a Pérez Izquierdo jauna Osakidetzako Uribeko ESiko Urdulizko Ospitalean atal sanitarioko buru izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan otorrinolaringologia.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta aldi baterakoa izango da luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2020ko martxoaren 4a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, luza-pena onartzen ez bada, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat etorritik.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, alde aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Uribeko ESlari Ebazpen hau jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2020ko apirilaren 16a.

Uribe ESiko zuzendari-gerentea,
M.^a LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.